

**Ontzi grisa eskuratzeko  
ilara luzeak**

**Santixabeletako danborrada  
taldea: "Familia handi bat  
osatu dugu"**

**Herriaren errekonozimendua  
jasoko du eskubaloiko  
emakumeen senior taldeak**

# noaua



**Hezkuntza Mahaia**

**"Gurasoei parte hartzea eskatu zaien  
gaietan, erantzun paregabea jaso dugu"**



**NOAOA BIDAIAK**  
GRUPO CLICK VIAJA

ERRESERBAK ETA INFORMAZIOA

**943 373 613**

[info@noaoabidaiak.com](mailto:info@noaoabidaiak.com)



eskeintza gehiago

[www.noaoabidaiak.com](http://www.noaoabidaiak.com)

**Hipodromo Etorbidea N°10**  
**20160 Lasarte Oria Gipuzkoa**

# LIZARDI LIBURVENDENEA



**IKASTURTE BERRIRAKO  
LIBURUAK SALGAI**  
Oporretarako koadernoak, testu liburuak,  
eskolako materiala...

**Etxebeste kalea, 1**  
**☎ 943 361 115**

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU



WELLA PROFESSIONALS -ren eskutik,  
**ILLUMINA KOLORAZIOA:**  
Kolorazio munduan eman  
den pauso handienetakoa

- ✓ Ilean, beste edozein  
koloraziok baino %70  
gehiago islatzen du argia
- ✓ %100 estaltzen duten  
koloreak
- ✓ Babes handiagoa duten  
kolore naturalagoak

Eta gainera,  
**AMONIAKORIK GABEKO**  
kolorazioa ere aukeran!

*Ondo pasa  
Santxabeletan!*



**INTZA**  
ILEA PAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

Eguerditan irekia! Nagusia 8, Usurbil 943 36 36 41

## Albiste iruditan

# Blai eginda, Aginagako Eskola Txikian

**G**oitik behera bustita amaitu zuten 2013-14 ikasturtea, ekainaren 20an; ikasle eta irakasleek, eskola osoa partaide izan zuen ur festa handi baten bueltan. Bazkaritarako bildu ziren gero Eliza Zahar berrituan, ikasle senideekin. "Primeran pasa genuen", berri eman diote NOAUA-ri. Argazkiok horren lekuko.

### Aginagako txokoak martxan

Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkartekoen antolatutako txokoak hasi dira. Astelehenaz geroztik martxan dira, uztaila amaiera arte, goizez, 9:00etatik edo 10:00etatik 13:00etara.

### Zaintza egiteko pertsona bila

Datorren 2014-15 ikasturterako goizeko zaintza egiteko pertsona euskaldun baten bila ari dira. Haurrekin zerikusia duten ikasketak kontuan hartuko dituzte. Interesdunek, bidali kurrikuluma aginaga@eskolatxikiak.org helbidera.



Ekainaren 20an agurreko festa egin zuten Eskola Txikikoek. Bazkaria Eliza Zahar berrituan egin zen.

## Laburrean

### Santueneko Jai Batzordearen bilera

Ostegun honetan, ekainaren 26an, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Santuenea Auzo Elkartearen. Irailean ospatuko diren jaiak prestatzeko baliatuko da hitzordua. Parte hartzera animatzen dute Jai Batzordekoek: "Festen prestatetan parte hartu nahi duen oro azaldu eta dituen proposamenak agertzera animatzen dugu".

### Errepide mozketaren ingandegozan

N-634 errepidea itxita egongo da Errekaldorio artean, Orioko noranzkoan, igande goizeko 10:00etatik 11:30etara. Donostialderako bide zatia zabalik egongo da. Errepide mozketan, Atletico San Sebastian taldeak ekainaren 29rako antolatu duen Nazioarteko Triatloi probak eragingo du.

### Uztailaren 7an izango da odol ematea

Bi hilean behin, hilabeteko lehen astelehenetan izaten da odola emateko aukera Usurbilen. Datorren saioa uztailaren egokitzen da. Uztailaren 1etik 6ra ospatuko diren Santixabellen ostean, hilaren 7rako jarri du hitzordua Usurbilgo Odol Emaleen Elkarteak. Ohiko ordu eta lekuan; 18:00-20:30 artean, anbulatorioan.

# noa.ua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkarte@noa.ua.com /// www.noa.ua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Bea Alda,

publizitatea@noa.ua.com.

#### Diseinu berria:

Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noa.ua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

#### Banaketa:

Olatz Rezola, Arantxa

Zulaika.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregarai eta Udarrégi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA**  
**ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Joxe Piñas

## Monarkiari ez

**F**eliperen tronuratzea dela eta zuzenbait ideia sinple etorri zaizkit burura:

Pertsona batek ezin du bere burua demokrata bezala aurkeztu eta era berean monarkia defendatu; monarkia definizioz sistema antidemokratikoa baita.

Felipe Borboikoak, edo beste norbaitek, Espainiako estatuko Agintari Nagusia izateko gaitasuna duela pentsatzen badu, hauteskunde sistema baten bidez hautatua izatera anima dadila, eta sortu dezatela alderdi politiko bat Felipe hautagaiarekin. "Felipe Puede" izen aproposa izan daiteke.

Espainiako sistema demokratikoa espainolek erreferendum baten bidez monarkia ala errepublika nahiago duten ezin dute erabaki.

Halaber, Espainiako sistema demokratikoa katalanek ezta euskaldunek ere, Espainiaren estatua-ren parte izan nahi dugun ala ez

ezin dugu erabaki.

Hau bai demokrazia! Frankoren garaietan behintzat argi esaten zen diktadura batean bizi ginela.

Euskal Herrian ikusteke dago "Gure Esku Dago" ekimenak zer ereindu duen; abiapuntua bezala ezin hobea izan da. Hori bai, Kataluniako prozesuak eta Espainiako Podemos-ek, Espainiako "Monarkia Parlamentario demokratikoa" eztabaidan dagoela agerian uzten dute iada.

Monarkiazaleek epe motzean eta aldaketarik ez balute egingo, egoera hau ez dela beraien alde- ra bueltatuko argi dute, bestela hobe zuten zaratarik ez egitea eta Juan Carlos I. mantentzea "bolada txar" hau pasa arte.

Ordena konstituzionalaren defentsa: Espainiako monarkia defendatzeko zenbait pertsonak eta erakundeek ordena konstituzionala errespetatu behar dela eta konstituzioa aldatzen ez den bitarte-

an sistema mantendu behar dela diote. Honi buruz bi kontu. Lehenengoa; horietako askok 1978ko Konstituzio Espainola aldatzea ere ez dute onartzen. Eta bigarrena; konstituzio hori eta monarkia sistema bera, Franko diktadoreak agindu zituenak dira. Beraz, kolpe militar baten bidez Frankok erretiratu zituen konstituzioa eta sistema errepublikarra ez al lirake izan behar defendatu behar-ko ziren benetazko ordena konstituzionalaren ezaugarriak? Edo pertsona zein erakunde horiek legitimatzen ari al dira biolentziaz lortutako "ordena konstituzionala", Frankorena alegia?

Errepublika eta monarkiaren sistemen arteko eztabaida hau estali nahian Futboleko Mundiala erabili nahi izan dute, horregatik Feliperen tronuratzea Mundialaren hasierarekin egokitu dute. Baina, Holandak eta Txilek Espainiako selekzioa mendekuan har-

tu eta kaleratu dute. Futbola berez-koa ez den helburuarekin erabili nahi izateagatik krisia areagotu zaie ere bai, selekzio bera sistemaren krisia islada baita: Barca eta R. Madrilako jokalarien arteko tentsioak, jokalaria batzuen Espainiako selekzioarengan sentimenduak kolokan, jokalariek kobratzen dutena,...

Bitxikeria bezala eta Monarkiaren erretolika honetan sinbologiak garrantzia handia daukanez, bide batez aipa dezakegu txiletarrek beraien izenordea berreskuratzea lortu omen dutela: "La Roja". Ezin momentu egokiagoa esateko: "Te recuerdo Allende", bera ere bai beste diktadore batek (Pinochet) kargutik kendu baitzuen.

Eta nola ez, momentu hauetan biziki gogoan ditugu Errepublika (konstituzionala eta legala) defendatzeagatik hil edota erbestean bizi behar izan zuten senitartekoak eta lagunak.

Maialen Unanue | Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Idoia Torregarai | Aritz Gorriti | **Joxe Piñas** | Nerea Zinkunegi

### Gazte Eguna, jaietako berrikuntza

Ernai, Gazte Asanbladak eta hainbat gazteek elkarlanean antolatu dute uztailearen 4an, ostiralez ospatuko den Gazte Eguna. Usurbilgo Gazte Mugimenduak ikasturtean zehar garaturiko elkarlanaren ispilu izango da Santixabeletako egun berezi hau. Poteoa, bazkaria, jokoak... Eguna pasa oso bat antolatu dute gazteek.

### "Laboaren UZTAilean" zikloa

Mikel Laboari gorazarre egin eta "berak utzitako uzta, euskal bakarlari gazteak" ere badirenez, ekimen ziklo berri bat antolatu du Usurbilgo Gaztetxeak, datorren hilabeterako; "Laboaren UZTAila". Jaietako astea salbu, uztaileko ostegunetan, astero 21:00etatik aurrera bakarlari baten emanaldiaz gozatzeko aukera egongo da.

### Enpresa mundukoei zuzenduriko ikastaroa

Buruntzalde eskualdeko enpresetako profesionalak nazioarteko eragiketan kontuan hartu beharreko oinarriko alderdi desberdinak eta bere berezitasunak ezagutzea da helburua. Uztailearen 1ean asteartea 9:00etatik 13:00era eta 14:00etatik 16:00etara Andoainin. Izena emateko: ekinean@andoain.org

### Udal zerga eta tasen ordainagariez

SEPA sistemarekin aldatu egin da orain arte etxean jasotzen den banku-informazioa. Datu horien artean dauden erreferentzia eta klabearen bidez, ondorengo web-orrian udalak luzaturiko ordainagiriaren xehetasunak ikusi edo inprimatu ahal izango dira. <http://dokumentuak.gipuzkoa.net>

**ARGILAN**  
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
 629 272 859 eta 943 36 13 80  
 BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

**Kima**  
 MASAJE LEKUA  
 · KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
 · KOLONAREN HIDROTERAPIA  
 Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

# Ontzi grisa eskuratzeko ilara luzea

**E**zin jakin ontzirik gabe geratzeko urduritasuna ote zegoen, erreusa ontzi batean bilduta ateratzeko gogoia edo ahal bezain laster, Usurbilek zero zabor norabidean emango duen urrats berrira egokitzeko nahia ote zen. Kontua da, asteburuan erreusa aurrerantzean kuboetan ateratzeko ontziak banatzen aritu zela Usurbilgo Udala, Oiardo Kiroldegian. Jende ilara luzea sortu zen, bai ostiral eta larunbatean.

Gogoan izan, kuboia eskuratu duzuenok, igande goizetan jada erabili ahalko duzuela. Uztaillaren 6tik aurrera, derrigorrezkoa izango da ontzi hau erabiltzea erreusa ateratzeko. Etxean sortzen duzuen erreusa biltzeko ontzi grisa ahalik eta beteena duzuela ateratzea komeni da. Aurrerantzean, hondakinengatik ordaindu beharko den tasaren zati bat hain zuzen, ontzia zenbatero ateratzen duzuen, horren arabera kalkulatu baitu Usurbilgo Udalak.

Abiatzear den hondakinaren sortzez besteko ordainketa sistema berriaren gako nagusietako



Aurreko astean, jende asko pasa zen kiroldegitik kubo bila.

ko bat izango da hori. Zero zabor norabidean, herri honek emango duen urrats berri baten atarian gaude hain zuzen. Sortzen dugun hondakinaren arabera ordaintzen ere, Usurbil aintzidari izango da Euskal Herrian.

## BILKETA EGUN GEHIAGO

Kubo grisa jaso ez duzuenok, datorren astean zehar ere, kubo grisa eskuratzeko bilketa postua jarriko baitu Usurbilgo Udalak. Gerturatu, eman zure helbidea eta ontzi grisa doan ja-

soko duzu:

### Ekainak 25, asteazkena

18:00-20:00 Santuenea 12, auzo elkarteko lokalean.

### Ekainak 26, osteguna

18:00-20:00 Aginagako Eliza Zaharrean.

### Ekainak 27, ostirala

18:00-20:00 Oiardo Kiroldegian.

### Ekainak 28, larunbata

10:00-13:00 Oiardo Kiroldegian.

Oharra: nork bere etxeko helbidea eman eta ontzi gris bat jasoko du doan.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

### Erreusa ateratzeko ordutegia

Igande goizetan, 6:30-9:00.

### Informazio gehiago,

#### Atez Ateko bulegoan

Puntapax kalea, 10 beheka.

Astelehenetik ostiralera, 9:00-14:30 artean.

900 776 776.

E-posta: atezate@usurbil.net

## Jendaurreko azken emanaldiekin, ikasturteko agurra



Herritarren aurrean agurtu dute Zumarte Musika Eskolakoek, 2013-14 ikasturtea. Egoitzan bertan, Sutegin, ikastolan edota San Esteban elizan eskainitako denboraldiko azken kontzertuekin. Instrumentu desberdinetan trebatzen dabiltzan ikasleek, edota Zumarteren inguruan sortu diren musika taldeek parte hartu dute, emanaldi ziklo honetan.



## SANTUENEA

JON ETXABE

### Santutegiari errepassoa

**B**ortizki heldu da udara Usurbila. "Egun sargori, gau iturri"; hori dugu azken egunotako leloa. Etxeko txiki eta gazteak jada oporretan, ez dakite/gu zer egin... edo bai? Hondartzara joan, bizikletari hautsa kendu, zibarekin jolastu (berriro itzuli da!!)... eta antzeko azken uneko planak dira gehien gogoko ditugunak. Kontua da, udarekin batera, gazteon peregrinazio berezia hasi dela, non guztiok, zintzo-zintzo, santutegia hartu eta erromesaldian goaz (hitz ezinhobea) inguruko geografia bisitatuz: San Joane (Jondone Johane) ireki dute bakanala Kalezarren, Hernanin, Tolosan, Andoainen... San Pedroek (Jondone Petri) jarraitzen dute Lasarten nahiz Irunen eta bien bitartean San Pe-laioak (Doneperai) Zarautzen. Errekuperatzeko denborarik gabe Santixabelak (ez du itzulpenik behar) Usurbilen. Hori dena ia aste bakar batean sartzen da, eta horrela dirau berriro gurera itzuli behar dugunera arte. Ikusten duzue, guraso maiteok, badugu zer egin oporretan, beraz ez arduratu gugatik eta "Etxeko Garbiketa Orokorra" edo "Amonarekin Peñiscolara egin genuen bidaiako argazkia ordenagailu/CD batetara pasatzea" bezalako asmo zirrargarriek itxaron beharko dute, irabazi baitugu! Obligazioa eginik iada, debozioa besterik ez zaigu geratzen, eta santu guztiak badira gure debozioko!



## AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

### Ikatz, txakur txapelduna



**A**rgazkian ikusten duzuen hau, Ikatz txakurra da, "pastor beauceron" arrazakoa. Orain dela 16 hilla bete jaiotzen Karrantza herrian baina gaur egun gure herriko Goikoetxe baserrian bizi da, eta ondo zainduta gainera. Bere jabeak diren Juan Jose, Jaione eta Joane alabarekin talde bikaina osatzen dute. Madrilgo nazioarteko txapelketan, bigarren geratu zen; Coruña-ko irabazle atera zen eta Frantziako Noeux Les Minesen mundu mailako txapelketarik garrantzitsuenetako bat ospatzen da. Han, 45 txakurrek hartzen dute parte eta Ikatz 9. postuan sailkatu zen. Bere jabeak aipatu didan moduan, txapelketak bi atal nagusi izaten ditu, bata edertasuna baloratzen dena eta bestean aldiz nortasuna. Bukatu aurretik, ugalketarako ere aholkatuta dagoen txakur bat dela ere esan nahiko nuke.



## KALEZAR

INMA BALDA

### Lizarra ez da bedeinkatu behar

**A**uzoko festak bukatu berri ditugu. San Juan bezperan piztutako suaren errautsak ez dira oraindik itzali. Eta arbasoen usadioari jarraiki Eguzkiari, bere indarra gal ez dezan, lagundu nahi izan genion sutzarra piztu genuenean. Eta aurten ere beti bezain sutu bizi ditugu auzotarrok gure festak, asteburu bakar batean izan badira ere. Hortik, errautsak eta lizar-adaxkak atean pasatako jaien seinale. Zergatik, ba, lizar-adaxkak gure atean? Galderari erantzun asko bilatu gabe ohiturari segida ematen diogu. Batek baino gehiagok esango digute geure etxeak izpiritu gaiztoen aurka babesteko egiten dugula. Eta inork ez du kontrakorik egingo. Denok sentitzen baitugu gure barne-barnean hori horrela dela mundua mundu denetik. Gainera gure zaharrek utzi ziguten erakutsia: "Lizarra ez da bedeinkatu behar, berez da bedeinkatu" (Manuel Lekuonak jasotako esaera zaharra). Beraz, ez da harrizkoa guztiok lizarren babesa bilatzea.

Halere, bat bukatzen da bestea hasten delako. Eta Sanjuanetako ajea pasa baino lehen Santixabelak ate joka ditugu. Beraz, indarrak berri-itu eta presta gaitzen hurrengo txupinazorako. Ondo pasa jaiak eta nola ez ondo irabazitako oporrak!



## ATXEGALDE

ARITZ GORRITI

### Ikastola, elkartasun bilgune

**A**utobusen joan etorriak amaitu dira, klaseen hasieraz ohar-tarazten zuten txirrin hotsak itzali dira. Goizetako joan etorriak, presak, iratzargailuak... Akabo, oporretan dira ikastolako ikasleak. Irakasleak ere atsedaldia hartzekoak dira Santixabelen bueltan. Amaitu da ikasturtea... Edo ez? Aurten oporraldia laburtuko zaie ziurrenik, zenbait irakasle, guraso eta baita ikasleei ere. Udarregiko eraikin berriko lanak amaitu dira eta gunea, 2014-15 ikasturte berrirako egokitzen ikusiko ditugu asteotan. Auzolanerako deia egin dute ostiral goiz honetarako. Irailerako prest beharko du eta eraikin berriak.

Hortik aurrera, gune berria eta hezkuntza ikuspegitik berritzailea izango dena erabiltzen hasiko dira guztiak. Haur Hezkuntzakoak tartean.

Ezin ahaztu ezta, ate joka ditugun Santixabeletan txosna jartzekoa dela Udarregi Ikastola. Urtebete barru Usurbilen ospatuko den Kilo-metroak jaialdirako laguntza bilketa martxan da. Betea dago datorren ikasturteko Udarregi Ikastolaren agenda. Ohi baino mugimendu handiagoa ikusiko dugu udazketik aurrera, ikastolaren bueltan. Baina aurretik, merezitako atsedaldia udan.

# Euskara ikasleentzako diru-laguntza deialdia

2013-14 ikasturtean zehar helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egin dituzten usurbildarrek, udal diru-laguntzak eskatzeko aukera dute, ekainaren 25etik uztailaren 9ra. Eskabideak udal erregistroan aurkeztu beharko dira. Horretarako, Usurbilen erroldatuak egon beharko dute, klaseen %80ko asistentzia izatea ere ezinbestekoa izango da eta gutxienezko aprobetxamendua ziurtatu beharra izango da. Ikaslearen lan egoera eta ikasketa mailak aintzakotzat hartuko ditu Udalak, diru-laguntzok ematerakoan. Gehienez 500 euroko laguntzak izango dira:

## Ikasle arrunta

- Gehienez ere matrikula kostuaren %80ko diru-laguntza jasoko du: Euskaltegiko 109. urratsa edo HABEren 2. maila arteko baliokideak diren ikasketak gainditu dituen ikasleak.
- Gehienez ere matrikula kostuaren %60ko diru-laguntza jasoko du: Euskaltegiko 109. urratsa baino gehiagoko ikasketak edo HABEren 2. maila baino gorakoak diren ikasketak gainditu

## Behar ekonomiko berezia duten euskara ikasleentzako deialdia, uztailaren

Euskaltegiko hurrengo ikasturteko matrikulazio kostua aurreratzea helburu izango du udal diru-laguntza honek. Datorren 2014-15 ikasturtean euskara ikasi nahi izan eta behar ekonomiko bereziak dituzten ikasleei zuzendua egongo da. Deialdia uztailaren 1ean jarriko du martxan Usurbilgo Udalak. Eskabideak aurkezteko bi asteko tarte izango dute interesdunek, uztailaren 15era arte. Euskara ikasleentzako diru-laguntza deialdi orokorreko oinarri berak aplikatuko dira kasu honetan.



Uztailaren 9ra arteko epea dago.

dituen ikasleak.

## Ikasle langabetua

- Gehienez ere matrikula kostuaren %100eko diru-laguntza jasoko du: Euskaltegiko 109. urratsa edo HABEren 2. maila arteko baliokideak diren ikasketak gainditu dituen ikasleak.
- Gehienez ere matrikula kostuaren %80ko diru-laguntza jasoko du: Euskaltegiko 109. urratsa baino gehiagoko ikasketak edo HABEren 2. maila baino gorakoak diren ikasketak gainditu dituen ikasleak.

## Uda honetan 100 orduko ikastaroa egiteko aukera egongo da AEKrekin

Datozen opor hilabete hauetan euskara ikasi edo hobetu nahi duenak, zabalik izango du AEK. 100 orduko ikastaroa egiteko aukera egongo da; uztailaren 60 ordu, irailean beste 40 orduak. Lehen, bigarren eta hirugarren hizkuntza eskakizunak edo EGA prestatzeko klaseetarako ere izena eman daiteke. Uda partera begira, bi asteko barne-tegiak, familia barne-tegiak eta barne-tegi ibiltariak ere antolatzen ditu AEK-k. Informazio gehiago: 607 609 379, usurbil@aek.org, aek.org, munterri.blogspot.com.es

## Bularreko minbizia prebenitzaeren inguruko solasaldia

Ekainaren 30ean, arratsaldeko 17:30etatik aurrera Potxoenean. Kattalin bularreko eta ginekologiako minbiziagatik eragindako emakumeen elkar-teak eta Usurbilgo Udaleko gizarte zerbitzuen sailak antolatutako hitzaldia, bularreko minbizia prebentzioaren ingurukoa izango da. Kattalin elkarteko lehendakari Charo Beobide eta Arrate Plazaola medikuak parte hartuko dute hitzaldian.

## Oinarrizko bihotz-biriken suspertzeari buruzko ikastaroa

Uztailaren 7an hasita bi egunez, 10:00-12:30 artean, DYAk Munalurra 26an duen egoitzan. Teoria eta praktika uztartuko dituzten saioon bidez, "bihotz-arnasketako geldialdia identifikatzen, oinarrizko bihotz-biriken suspertze (BBS) mugimenduak burutzen eta DEA (Kankoko desfribiladore automatikoak) erabiltzen ikasten da". Ikastaroan parte hartu ahal izateko alde zuzeneko ezaguerarik izatea ez da beharrezkoa izango. Matrikulazioa 90 euro, esku-liburua barne. Ikasle kopurua mugatua izango da. Aurrez eman beharko da ikastarorako izena, 943 46 46 22 telefono zenbakira deituta.

## Aisialdiko laguntzak eskatzeko epea

Ostiral hau, ekainaren 27a azken eguna. Eskabideak udal erregistroan aurkeztu behar dira. Deialdia, 2013-2014 ikasturtean zehar Eusko Jaurlaritzak homologaturiko aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa euskaraz egin duten usurbildarrei zuzendua dago. Hauek izango dira banatuko diren diru-laguntzak:

-Begirale ikastaroa: matrikularen %50 (gehienez ere 250 €).

-Aisialdiko zuzendari ikastaroa: matrikularen %50. (gehienez ere 150 €).

Informazio gehiago: usurbil.net

**JE JON ELORZA**  
**IGELTSERITZA**  
**OROKORRA**  
**Obrak eta erreformak**  
**661 804 688**  
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

**www.noaia.com**  
 USURBILGO ATARIA

# “Herritarrei etengabe irekia dagoen esparru bat da Hezkuntza Mahaia”

Ikasturte hasiera urruti geratzen da. Ikasleak bezala, Hezkuntza Mahaikoak ere irailan jarri ziren martxan. Geroztik, hilean behin elkartu dira. Ekainean egin zuten azken bilera. Eta bilera horretan balantze modukoa egin dute. NOAUA!k izan du balantze hori eskuratzeko aukera. Bereziki, bi gauza hauek izan dituzte aztergai: ikasleen trantsizioak ikastetxe batetik bestera eta ikasleei bidaltzen zaizkien etxeko-lanak. Bilera monografikoez gain, “herriko beste hainbat eragilerekin elkartu gara hainbat gairi buruzko iritzien trukatzeko eta elkarlanerako aukerak jorrazteko”, udal iturriek aditzera eman digutenez.

Hezkuntzari lotutako foro ireki honetan landutako kontuen gainetik, “azpimarratu nahi genuke Hezkuntza Mahaia osaketan adostutako funtzionamenduaren oinarria. Hau da, heziketaren zentro gisa ikasleak berak izan behar zuela eta honenbestez, ikaslearen ingurunearen eta ikaslea beraren iritziak kontuan izan beharko genituzkela edozein aldaketari ekin aurretik”. Hala irakurri dugu Hezkuntza Mahaia balorazioan.

Horregatik, bereziki aipatu nahi dute ondokoa: “bi oinarri sendo hauek jarraitu izan ditugula edozein gai jorrazteko garaian. Gurasoei parte hartzea eskatu zaien gaitetan, erantzun paregabea jaso dugu beraien aldetik eta guretzako berri pozgarria da. Esaterako, etxerako lanen inguruko inkestetan, bidalitako galdeketen %76,26-a biltzera iritsi ginen.

Bestalde, ikasleak izanik heziketaren zentro, eredu garritzat hartu daitekeen prozedura



Hezkuntza Mahaia: Heziketaren zentroa ikasleak berak izan behar du”

Hezkuntza Mahaiko dokumentazioa eta egindako lanen txosten guztiak [www.usurbil.net](http://www.usurbil.net) orrian daude eskura edota ikusgai.

erabili dugu landutako bi gaitetan; izan ere, gai horien inguruan dituzten iritziak jaso eta aztertu baititugu”.

## GUNE IREKIA

Hezkuntza Mahaia udalaren ekimenez abiatu zen baina “herritarrentzako etengabe irekia dagoen esparru bat da eta

edonoren iritzi edo laguntza, beso zabalik onartzen da”. Datoren urtean, beraz, gune honetan partehartu nahi duen orok ateak zabalik izango ditu.

## Hezkuntza Mahaian 2013-2014 ikasturtean landu dituzten gaiak

“**Ikasleen trantsizioak** ikastetxe batetik bestera, ikastola barruan etapa batetik bestera edo ziklo batetik bestera igarotzea:

- Problematika aztertu genuen. Aldez aurretik galdetegi bat prestatu eta banatu zen familien eta ikasleen artean.
- Jasotako datuen azterketa egin genuen eta ateratako ondorioak eta erabakiak ikastolak kontuan hartuko dituzten hurrengo trantsizio-egoeretan, ikaslea egoera bareago batean aurki dadin eta uena urduritasun gutxiagorekin

bizi dezan.

**Etxeko-lanak:** eztabaida gai bihurtu da hezkuntza-oro ezberdinetan, eta gure artean ere kezka pizten zuen gaia izanik, egoki iritzi genion Hezkuntza- Mahaian lantzea:

- Han-hemenka bildutako artikuluen interesgarriak partekatu ditugu.
- Ikerketa-lanek zer zioten aztertu dugu.
- Ikastolan, LHn bereziki, etxeko-lanen diagnostia egin da: maila bakoitzekoak aztertu, beste mailakoekin aldera-

tu, diagnosiaren datuak panel batean islatu ...

- Ikastolako LHko familiei galdetegi bat pasa zaizue zuen ikuspegia eta iritziak jasotzeko.
- Ikastolako LHko ikasleei galdetegi bat pasa zaizue zuen ikuspegia eta iritziak jasotzeko.

**Bilera monografikoez gain,** herriko beste hainbat eragilerekin elkartu gara hainbat gairi buruzko iritzien trukatzeko eta elkarlanerako aukerak jorrazteko: Usurbil Cup, Ziortza, Gaztetzeta”.



# Agur, kirol urteari

**G**aztetxoentzako prestatu zieten oka joko erraldoiarekin abiatu zuten Usurbil FT-koek, 2013-14 denboraldia amaitzeko, ekainaren 21erako antolatua zuten festa egun handia. Haurrak nonahi ikusi genituen goiz partean Kaxkoan, danda bota eta egokitzen zitzaizen zenbakian antolatzaileek prestatu zizkieten probak gainditu nahian. Indarrak hartzeko bazkari goxo askoa dastatu zuten gero, Askatasuna plazan. Jai giro betean.

## Festa, goizaldera arte

Beteranoen txanda arratsaldean. Euren arteko futbol partidak jokatu ziren frontoian. Eguna amaitzeko, herri afari baten bueltan bildu ziren Askatasuna plazan, Usurbil FT-ko jokalariek, entrenatzaile eta zuzendaritzako kideak.



Giro ederrean ospatu zuten bere eguna Usurbil Futbol Taldeak.



Gazte zein heldu aritu ziren jolasean, eta ospakizun giroan. Askatasuna plazan herri bazkaria egin zuten.

# Santixabeletako danborrada taldea: “Familia handi bat osatu dugu”

Santixabelak ofizialki hasiko dituen suziria jaurti eta berehala, danbor hotsek hartuko dute Kaxkoa, uztailaren 1ean. Udaletxe paretik abiatuko dute danbor joleek, ohi bezala bitan zatitua duten kalejira; afalurretik eskainiko baitute lehen saioa, bigarrena gauerditik aurrera. Danborrada taldekoen gonbita herritarrei; “Gurekin gozatu nahi duenak ongi etorria izango da”. Agerialden entseatzeko dabilta azken asteotan. Bederatzi urtez taldeko zuzentzaile gisa diharduen Jurgi Olasagasti herritarrekin bildu gara, ate joka ditugun jaietako hitzordu beteranoenetarikoaz hitz egiteko.

**Aurten, danborrada Santixabel bezperara itzuli da. Aldaketarekin gustura?**

**Jurgi Olasagasti:** Iaz bakarrik aldatu zen egunez. Danborrada beti atera izan da Santixabel bezperan, uztailaren 1ean eta horri eutsi nahi diogu.

**Danborradan izena ematen dutenen profila, lagun taldeena da?**

Lagun talde koadrila oso bat danborradara bertaratzeko konplexua da. Ikusten dudana da danborrada honetan jendea banaka, binaka, hirunaka apuntatu izan dira eta jada familia handi bat osatu dugu. Parte hartzen dugun gehienak urteak daramatzagu taldean. Gero kide berri batzuk daude. Badira bakarka dauden pertsona batzuk danborradara animatzen ez direnak, ustez bakarrik daudelako. Baina gero danborradan denok bat egiten dugu. Bakarrik dauden lagunok izen ematera animatzen ditut. Banaka banaka, halaxe osatzen da taldea.



**Jurgi Olasagasti:**  
“Donostiakoarekin zerikusirik ez du. Beste giro bat du Usurbilgoak”

Uztailaren 1ean aterako dira kalera. Dena den, entseguak duela aste batzuk hasi zituzten.

Aurreko astekoa da irudian agertzen dena.

**Ohiko partaideak izanda, prestaketa lanak erraz bideratuko dituzue?**

Bai. Halere, ez dira San Sebastian egunez Donostian jotzen dituzten abestiak, ezberdinak dira. Urteetan atera garenok nahiko dominatuak ditugu. Kide berriak pixkanaka ikasten joango dira, urtetik urtera hobetzen. Kantak geroz eta gehiago kontrolatzen diren neurrian, geroz eta gehiago gozatzeko da talde barruan, baita danborrada ikustera datozenekin ere.

**Abestiak nola hautatu dituzue?**

Aspaldi aukeratu ziren abestiok, pentsatuz, Donostiako danborradaz gain, beste kanta asko daudela. Kalejirak diren abestiak hautatzen ditugu, edo geldirik jotzeko abestiak, bien arteko konbinaketa bat izaten da. Eta ahal baldin bada abesti erakargarriak eta biziak, bizitasuna ematen duten abestiak hobe.

**Talde barruan egun handi gisa bizi duzue danborrada eguna, partaideak lantokian**

**jai eguna eskatzera ohituak daude?**

Lan txandak aldatzen dituzte, jai eskatzen dute biharamunetan. Beti saiatzen dira danborrada eguna libre izaten eta baita biharamuna ere. Danborradan oso ondo pasatzen dugu. Donostiako danborradarekin zerikusirik ez du. Beste giro bat du Usurbilgoak. Beti animatzen dut jendea probatzera, behin gutxienez. Gasturik ez du.

**Txarangarekin kaleratuko zarete. Koordinazio bat beharrezkoa izango da, saioa ongi joateko?**

Gauerdiko txarangarekin. Gure arteko konplizitatea handia da. Abestiak guk nahi dugun bezala jotzen dituzte. Tratua oso ona da, afaritan giro handia jartzen dute. Danbor joleek oso ondo jotzen dute txarangarekin, ondo menderatzen dituzte abestiak. Entsegu saio bat egiten dugu beraiekin, hasierak, bukaerak, errepikapenak doitzeko.

**Danborradan parte hartzeko**

**izen ematea itxia duzue aurretengorako. Datorrenerako zer esan probatu ez duenari?**

Gutziz irekia den jaietako ekin-tza bat da. Denentzako parte hartzeko aukera ematen duena, oso ondo pasatzen da, ez du gasturik, behin probatzeagatik ez da ezer galtzen. Beste pertsona batzuk ezagutu ahal izateko aukera eman dezakeen ekimena da.

## Aldaketak, ibilbidean

Uztailak 1 asteartea  
Ordutegia: 19:30-21:00  
00:00-01:00.

**Ibilbidea:** aldaketak aurten. Abiapuntua, udaletxe aurreko plaza.

**Danbor joleek eraman beharrezko jantziak:**

■ Emakumeek: alpargata beltzak, baserriarren gona, alkandora beso luzea jasoa, eta letra edo irudi gabeko koadrodun zapia.

■ Gizonezkoek: alpargata beltzak, mahoizko galtzak, alkandora beso luzea jasoa, eta letra edo irudi gabeko koadrodun zapia.

# Zalao Arnaiz, jaietako egitarauaren diseinatzailea: “Ikurrinari merezi duen lekua egin diot”

Ikurrinak merezitako tartea duen Santixabeletako egitarau garbi, irakurterraz eta erabilgarria esku artean izango duzue asteburu honetan. Ostiral honetan, ekainaren 27an Usurbilgo Udalak banatuko duen ekitaldien gida, Zalao Arnaiz Iburguren, jaietako egitarau diseinu txapelketako irabazlearena da. Diseinua du ogibide, baita zaletasunetako bat ere. Lerrootan aitortu digun moduan, ikusi bestela datozen jaietan. Kalean topatuko duzue Zalao, urtean zehar hainbat ekitalditan bezala, jaietako “uneak” erretratzen eta bideoz jasotzen.

**Aurtengo egitaraua eskutan, ikurrina omentzen duen egitaraua dela esan genezake?**

**Zalao Arnaiz Iburguren:** Azken urtean usurbildarrok ikurrinari merezi duen omenaldi keinu ugari egin dizkiogu, gurea sentitzen dugun ikurra zein den argi adieraziz. Egitaraua horietako beste keinu bat da, azalean eta kontrazalean kolore zuri-gorri-berdeak azpimarratuz. Nik argi daukat nongoa naizen, zein diren gure ikurrak eta beraz, pasa den urteko jaietako argazkiekin batera, ikurrinari merezi duen lekua egin diot egitarauan.

**Testua eta irudia, sarri harreman gatazkatasua. Nola kudeatzen du diseinatzaile batek, testua eta irudia euskarri batean uztartzeko lana?**

Irudiak eta testuak bateratu behar direnean maiz zailtasunak izaten dira. Irudiak garrantzia du beti baina testua lagungarri denean, hau modu garbian, irakurtzeko modu egokian landu behar da. Askotan emaitza polita lortzea baino funtzionala izatea lehenetsi behar izaten da.



“Argazki asko eta kolore biziak”, horiek egitarauaren ezaugarriak.

## ZALOA ARNAIZ

**“Egitarau garbia eta irakurterraza izatea lortu dudala uste dut”**

**Emaitzarekin gustura?**

Gustura bai, egitarau garbia eta irakurterraza izatea lortu dudala uste dut.

**Egitarau eramangarri bat sortu duzu. Zertan, norengan pentsatzen da horrelako sormen lan bat abiatzerakoan?**

Praktikotasunari heldu diot. Eskuetan ondo erabili eta bereziki erraz irakurri daitekeena izatea. Inongo konplexutasunik gabe eta erraz erabili daitekeen liburuxka txikia da.

**Herritarrek egitaraua nola erabiltzea nahiko zenuke?**

Bakoitzak nahi duen bezala; erosoan etortzen zaion mo-

duan, poltsan, poltsikoan...

**Lehiaketa aurrez gehiagotan irabazia zara. Nolakoak dira saritu izan dituzten zeure diseinu lanak?**

2007an irabazi nuen Santixabeletako egitarauaren lehiaketa eta hura ere tamainuz txikia zen. Bi ezaugarri amankomun azpimarratuko nituzke: argazki asko eta kolore biziak. Argazkilaritzari afizio handia diot (batzutan gehiegizkoa je,je,je) eta normalean aurreko urteetan ateratako jaietako argazkiak sartzen ditut. Koloreari dagokionez berriz, jaiek transmititzen duten alaitasuna adierazteko, kolore indartsuak eta biziak lantzen ditut

**Halako garaipenek lehiaketan parte hartzen segitzera motibatuko zaituzte noski?**

Dudarik gabe. Tartetxo bat hartu besterik ez da egin behar

eta irudimenari bide eman. Urteetan ikasitakoa bizirik mantetzea eta praktikan jartzea laguntzen dizu eta nola ez, besteengandik ikasteko aukera ere.

**Zer nolako plana duzu Santixabeletarako?**

Lagun eta senideekin ospatu asmo dut. Han eta hemen bazkari edo afaririk ez da faltako eta urteroko betiko hitzorduetan ez huts egitea espero dut. Eta nola ez, klik eta klik argazkiak ateratzen ikusiko nauzuela ez dudarik egin (je,je,je).

**“Diseinu munduan aldaketa asko eman dira”**

**Urte gutxitan, teknologia berrietan eman den iraultzak zer nola eragin du diseinu munduan?**

Diseinu munduan aldaketa asko eman dira eta jarraitzen dute. Arte Ederretako ikasketak egin nituenean, fakultatean zein etxean ez nuen ordenagailurik, dena eskuekin zuzenean egiten nuen: marraztu, bozetoak egin, argazkiak eskuz tratatu... Internet eta diseinu programen ezagutza ez nuen. Materialekin zuzeneko harremana nuen eta hori pixkanaka baztertzen joan naiz. Lanbidez ezinbestean ordenagailua aurrean egotea tokatu zait eta horrek beste bide batzuk jorratzera eramana nau. Gaur egun ordenagailu gabe biluzik egongo banintz bezala sentitzen naiz. Mugikor-tabletak ere bere sarrera egin dute diseinu munduan eta horiek ere eskuarteetan izaten ditut maiz.

# Ekaitzaldiak ez du San Joanetako giroa ito



Auzoko gazteak sasoi betean direla erakutsi zuten jokoetan. Jon Uribe auzokidearen omenez jarritako pankartaren azpian bildu ziren amaieran.



Urdinak eta zuriak, zuriak eta urdinak lehia bizian, jaien hasierako jokoetan. Indarra bada Kalezarren, soka-tiran erakutsi zuten moduan.



Dantzari belaunaldi ezberdinen topagune izan zen Kalezar, pasa den asteburuan.



Ateri eutsi zion eta arazorik gabe piztu ahal izan zen, San Joan bezperako Pikaolako sutzarra.



San Joan suak eta eskeak bat egin zuten, Kalezarko Pikaolan. Irudian, Asier Azpiroz bertsoetan.



Mus Txapelketan, Jexux Uribe eta Jimi Orbegozo nagusitu ziren. Bigarren izan ziren Fermin eta Juantxo Iraola aita-semeak.

# Gaztelekua, Udabentura betean

**O**rain bai, oporretan dira 16 urtera arteko ikasleak. Aisialdiaz gozatzeko tarte zabala dute hemendik aurrera. Gaztelekutik Udabenturan murgiltzera gonbidatzen dituzte DBH-ko lagunak. Ekimen sorta zabala prestatu dute uztaila amaiera bitarte. Urtaro aldaketa gertatu zen egun berean, larunbatean abiatu zuten egitaraua, udari ongi etorri emateko festa batekin. Astelehenean film bat ikustekoak ziren. Datozen asteotarako joko, txango eta proiektio gehiago antolatu dituzte.

Ekintza guztion harira, zenbait ohar plazaratu dituzte Gaztelekutik. Batetik, irteeretan parte hartzeko guraso baimeanak Gaztelekuan jaso beharko direla. Bestetik, hitzordu guztietarako Gaztelekua izango dela elkartzeko gunea. Eta udako egitarauari buruzko informazio gehiago, egoitzan bertan eskuratu daitekeela. Uda parterako ekintzen zerrenda osoa hemen:



16 urtera bitarteko ikasleek zeregin ugari dute aukeran, Gaztelekuan.

## Ekainak 26, osteguna

16:30 Futbol txapelketa (Denak).

## Ekainak 30, astelehena

16:30 Oiardo Kiroldagiko tatiemietara (DBH3).

## Uztailak 3, osteguna

16:30 Ping Pong txapelketa (Denak).

## Uztailak 7, astelehena

16:30 Pelikula (DBH1).

## Uztailak 10, osteguna

13:30etatik 19:25era Donostia-

ko irlara (DBH1).

## Uztailak 14, astelehena

14:50-19:10 Voleibol Zarauz-kohondartzan (DBH3).

## Uztailak 17, osteguna

15:00etatik 19:15etara Hernaniko igerilekura (DBH2).

## Uztailak 21, astelehena

12:50-19:05 Donostiako irlara (DBH2).

## Uztailak 24, osteguna

12:50etik 19:05era Zarauzko hondartzara (DBH1).

## Ziortzako kanpaldia muntatzera

Uztailerako antolatu duten kanpaldiko azpiegitura larunbat honetan, ekainaren 28an muntatuko du, Peñaloscintosera (Errioxa) gerturatuko den laguntzaile taldeak. Taldera batu nahi duenak, idatzi dezala ziortzage@gmail.com helbidera edo deitu 943 361 239 telefono zenbakira. Kanpaldiko lehen gazte taldea, uztailaren 8an helduko da Peñaloscintosera. DBH-koak izango dira eta hilaren 22ra arte egongo dira bertan. Gero, LH 5 eta 6 mailetako ikasleek hartuko dute lekukoa. Uztailaren 31ra arte egongo dira Errioxan.

## Udajolas, uztailaren 1etik aurrera

Inoizko haur kopuru altuena bildu du aurtengorako, Usurbilgo Udalak eta NOAUA! Kultur Elkar-teak antolatutako udako aisialdi ekimenak. 4-12 urte arteko 165 haur guztira. Udajolas, uztailaren 1ean, asteartez abiatuko da, Santixabeletako festa giro betean. Adi, jaiak tarteko, datorrena aste xeble samarra izango baita; uztailaren 2an, Santixabel Egunez, eta Haurren Eguna ospatuko den uztailaren 3an ez da Udajolasik izango. Uztailaren 4an, ostiralez bai. Uztailaren 25a ere, jai eguna izanik, Udajolasik ez.

## Goizeko, frontoian elkartuko dira

Gainerakoan, normaltasun osoz, astelehenean ostiralera, goizez eta lau orduz, 9:30-13:30 artean frontoian elkartuko dira.

## Zubietako txokoak, bi hilabetez

Aurten ere, uztaila eta abuztura-ko udako txokoak antolatzen dituzte Zubietan, Usurbilgo Udalen laguntzaz, 3-11 urte arteko haurrentzat. Eskola Txikian burutuko da bi hilabeteko aisialdiko ekimena. Astelehenean ostiralera, 9:30-13:30 artean.

## Gazteentzako auzolandegiak, uztailan

**U**da partean egon badira 18 urtetik gorako gazteentzat ere eskaintzarik. 18-30 urte arteko gazteei zuzenduak daude bi auzolandegi hauek. Ekainaren 27an amaituko da izen ematea. Prezioa: 150 euro (ostatua, ikastaroaren barneko garraioa eta janaria).

### "Gerra Zibila 1936-1937. Erresistentziaren oroimena eta az-tarnen bila"

Epea: uztailak 7-27.

Tokia: Aduna, Asteasu eta Zizurkil.

Egitekoa: Oroimen berreskurapen lana, Gerra Zibilean lehengo erresistentziaren gune



Ostiral honetan amaituko da izen-ematea.

izan ziren Tolosaldeko herriotan.

### "Nafarroako mugak Erdi Aroan"

Epea: uztailak 21-abuztuak 3.

Tokia: Galipentzu.

Egitekoa: Nafarroako eskualde

horrek bizitako azken hamarkadetako despopulazio prozesuak "galbidean" utzitako gune historiko eta arkitektoniko "adierazgarriak" zaharberbitzea.

Informazio gehiago: ueu.org

# Herriaren errekonozimendua jasotzeko unea

ESKUBALOI TALDEKO NESKEK PIZTUKO DUTE SANTIXABEL JAIEN HASIERAKO ITXAFEROA

**B**idean aurkitu dituzten mugak eta oztopoak ez ziren gutxi, baina gogor borrokatu dira eta aurreikuspen onenak ere askogatik gainditu dituzte. Inurri lana egin behar izan dute, egunean eguneko lana, irribarrea galdu gabe. Taldean duten elkarlanerako ilusio, adore eta indarrak, egunerokoa egindako ahaleginak, emaitza ikusgarriak lortzera eraman dituzte. 21 neurketako denboraldian, 19 irabazi, bakarra galdu eta bestea, aurkariekin berdinduta amaitu dute. Hilabete ko tartean, Euskadiko txapeldu norde izendatu dute taldea eta Zilarrezko Mailara igotzea ahalbidetu dien Espainiako sektoreko txapelidunak ditugu. Eta guztia, zazpi, zortzi jokalariko taldeak lortu du. Zenbakiokin soilik ezin da neurtu duten meritua. Baina eskuratzerara heldu direna, ederki irudikatzen dute zifrok.

## Herritarren erabakiz

Egindakoagatik zoriondu eta errekonozitzeko ordua da orain. Datozen Santixabeletako txupinazoa jaurtitzeko ohorea, senior nesken eskubaloi taldearena izango da. Merezimendu osoz gainera, hala nahi izan baitute herritarrek. Festen hasiera ekitaldian nortzuk parte hartu behar zuten erabakitzeko Jai Batzordetik aurreko hilabeteotan antolatu den “Nork merezi du?” ekimenaren baitan, bozka gehien jaso dituen usurbildarren proposamena da senior neskena. Eta Jai Batzordeak ere bat egin du herritarren nahiarekin.

## 19:00etan udaletxe plazan

Usurbili poztasun une bat baino gehiago ekarri dizkion senior nesken eskubaloi taldekoak izango dira beraz, udaletxe-



Garaipena ospatzen, taldeko jokalariek eta entrenatzaileak. Orain, jaietako hasiera emateko ardura izango dute.

## ESKUBALOI TALDEA

**“Eskubaloi taldeko kide ikusiko ditugu udaletxeko balkoian. Emakume kirolari izateagatik jasandako diskriminazioa plazaratu eta eskerrak emateko baliatuko dute”**

ko balkoira igo eta jaietako lehen suziria piztuko dutenak. Eurek emango diete ongi etorrria, 2014ko Santixabelei. Gogoratu hitzordua; uztailaren 1ean, asteartez, arratsaldeko 19:00etan udaletxe aurreko plazan. Ez Dema plazan. Azken urteetan frontoi ondoan ospaturiko hasiera ekitaldia, garai bateko lekura itzuliko da. Jaietako gune izateko berreskuratu duten udaletxe aurrera. Ikurriña igotzearekin batera, eskubaloi taldea eta udal ordezkariak ikusiko ditu-

gu beraz udaletxeko balkoian, udal ordezkariarekin batera. Pregoia irakurriko dute noski. Unea, talde lana eta “ezina ekinez egin” izan dela nabarmendu, emakume kirolari izateagatik jasandako diskriminazioa plazaratu eta eskerrak emateko baliatuko dute, emakume taldeak lorturikoagatik zoriondu, omendu eta jaietako hasiera ospatzera hurbildutako herritarren aurrean.

## Jaiei hasiera emateko ohorea

Unean uneko garaipenak ospatzeko baliatu da txupinazo ekitaldia, elkartasuna adierazteko injustizia baten biktima izaten ari ziren herrikideei, herriaren alde egiten dutenagatik errekonozitzeko, bestetan ikusgarritasuna emateko herriko kolektibo ezberdinei. Usurbilgo eragile eta herritarrek izan dute, Santixabelei harrera egiteko ohore eta mehezimendu osoa.

## Azken hamarkadako txupinazioak

Azken hamarkada honetako txupinazo ekitaldiak, horren guztiaren lekuko:

- 2002: Iñaki Urkia.
- 2003: Egin-Egunkariako langile ohiak.
- 2004: Martin Alustiza.
- 2005: Amaia Zubiria.
- 2006: Antzerki Taldea.
- 2007: Amador Granados.
- 2008: Juan Mari Torrealda eta Olatz Altuna.
- 2009: eskubaloi eta judo taldekoak.
- 2010: helduen danborradako kideak.
- 2011: Usurbil Zero Zabor.
- 2012: Atzegiko kideak.
- 2013: DYako kideak.
- 2014: senior nesken eskubaloi taldea.

## Donostiako Nazioarteko Triatloia Usurbildik igaroko da

**N**azioarte mailako triatloi beteranoetako bat da Donostiakoa, Onditzen omenez egiten dena. Igande honetan ospatuko da eta Usurbil aldeko lurra ere zeharkatuko ditu. Honek trafikoko mailan hainbat egokitzapen ekarriko ditu. Goiz partean, N-634 errepidea itxi egingo dute Errekalde eta Orio artean. N-634ren beste zentzua irekita egongo da eta Orio edo Zarautzera joateko Belartzatik A-8 hartu beharko da.

Aurreko edizioetan bezala, distantzia olinpikokoa osatu beharko dute lasterkariak: 1,5km igeri, 40km bizikletan eta 10km korrika. Euskal Herriko triatloi zirkuiturako zazpigarren proba baliogarria izango da. Eta ez hori bakarrik, igandeko proban Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak egongo dira jokoan.

Onditx Memoriala ere bada igandeko lasterketa, eta Club Atletico San Sebastianek, Gipuzkoako Triatloi Federazioak eta Euskadiko Triatloi Federazioak antolatuta dute.

### IBILBIDEA

Igeriketa atalean, 1.500m-ko ibilbidea osatu beharko dute, Kontxako badian. Uretatik irten ondoren, Hotel Londres parean, bizikleta saioa hasiko dute. 40km-ko ibilbidea egin beharko dute. Kontxako pasealekutik irten, Antigua eta Berio zeharkatu Zuaztura iristeko. Handik, atzeko errepidetik, Añorga Txikirantz abiatuko dira gero Oriora joateko, Añorga, Usurbil eta Aginaga herriak igaro ondoren, Mendizorrotz Orioko Bentatik igo eta Donostia zen-



Usurbil eta Aginagako lurretatik pasako dira lasterkariak.

trora jaitsiko dira Igeldotik behera. Proba amaitzeko 10km-ko oinezko lasterketa osatuko dute, Kontxako Pasealekutik irten eta Real Club de Tennis arte joango dira, han itzulia emanez, Atletico San Sebastianeko instalakuntzetaraino, hiru itzuli emanez. Helmuga, Vinuesa Plazan kokatuko da.

### ERREPIDE MOZKETA

Igande honetan, triatloi hau tarteko, N-634 errepidea itxi egingo dute Errekalde eta Orio artean. "N-634ren beste zentzua irekita egongo da eta Orio edo Zarautzera joateko Belartzatik A-8 hartu beharko da. Orion, Txankako aldapa itxita egongo da gorako zentzuan, baita Igeldorako igoera ere. Barkatu sortuko diren trafikoko eragozpenengatik", antolatzaileek aditzera eman dutenez.

### Udako ordutegia Oiardon

Oiardo Kirolegia, uztaila eta abuztuan:  
Lan egunetan: 7:00-13:00 eta 17:00-21:00.  
Larunbatetan: 9:00-13:00.  
Igande eta jai egunetan: 9:00-13:00.  
Itxiera egunak: uztaillak 2, 3 eta abuztuak 1-24 artean.

### Ezin izan zuen proba amaitu Iñaki Añorgak

3,8 kilometro igerian, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilometro korrika aritu behar zuen Iñaki Añorga usurbildarrak, Swissman muturreko triatloi proba osatzeko. Larunbatean Suitzatan parte hartu zuen hitzordua amaitu ezin geratu zen ordea. Igeriketa eta bizikleta probak osorik egin zituen. Maratoiko 27. kilometrorara arte ere korrika egin zuen, baina horixe amaitu zuen Swissman proba, ahalegin ikaragarria egin ostean.

### Usurbil KE, Granollers Cup-en

Inoizko parte hartze handiena izango duen Europa hegoaldeko eskubalo txapelketa garrantzitsua asteazken honetan, ekainaren 25ean abiatzekoa zen. Eta aurreko urteetan bezala, bertan izango da etxeko ordezkariak ere; Usurbil K.E. Lau kontinente ezberdinetatik joandako 300 talde eta ia 4.000 kirolari elkartuko dira Granollers-en (Herrialde Katalanak).

## Pirinioetako irteerara joateko izen ematea uztaillaren 3an amaituko da

**U**ztaillaren 12-13an Gavarnie aldera joango dira Andatzakoak, "Pirinioetako leku liluragarrienetako bat bisitatzera". 12an Pont D'Arrailletik Grange de Holle aterperaino joango dira, Lac des Gloriettes, Estaubeko bailara, Hourquette D'Alans (2.436 m) eta Gavarnieko herria zeharkatuz. "Uztaillaren 13an autobusak Bujarueloraino (Col de Tentes) eramango gaitu eta Taillón mendira (3.144 mt) igoko gara, Sarradets eta Rolanden bretxatik pasa ondoren".

### Uztaillaren 12an eta 13an

- Irteera Oiardo udal kiroldegitik, goizeko 6:00etan. Garraioa, autobusez.
- Non eman izena: Andatza Mendizaleen Kirol Taldeko 2095 5069 07 1068489805 kontu zen-

bakian (Kutxabank), uztaillaren 3a baino lehen.

- Plaza mugatuak. Lehenetsuna Andatza MKT-koek dute.
- Ostaturia Gavarnieko Grange de Holle aterpean izango da (Pentsio erdia).

### Kontuan hartzeko, izena eman aurretik

Izena ematerakoan izena eta bi abizen eman behar dira eta ordaindu behar da:

- Andatzako bazkideek, Pirinioetako gehigarria dutenak 35€
- Andatzako bazkideek, Pirinioetako gehigarria EZ dutenak 42€
- Gainontzekoek, (federatuak), Pirinioetako gehigarria dutenak 49€
- Gainontzekoek, Pirinioetako gehigarria EZ dutenak 56€



### Oharrak

- Plaza mugatuak. Lehenetsuna Andatza MKT-koek dute.
- Ostaturia Gavarnieko Grange de Holle aterpean izango da (pentsio erdia).
- Uztaillaren 10ean, arratsaldeko 19:00etan bilera egingo da Sutegiko aretoan.
- Andatza MKT-ak ibilbidea aldatu edo bertan beharra utzi dezake. Info gehiago: andatza.com







# Agenda ekaina

## 27 ostirala

- **Udarregi Ikastolako eraikin berria auzolan berrantolatzeke deia.** 9:30ean Udarregi Ikastolako eraikin gorrian.
- **Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkarretaratzea** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

## 28 larunbata

- **Zirriborro Tailerreko erakusketa.** 11:00-13:00 / 18:00-20:00 Sutegikn.
- **Ziortzako kanpaldia muntatzera joateko deia** Peñaloscintos (Errioxa) 18:00-20:00 artean. Laguntzera joateko izen ematea: zioztage@gmail.com edo 943 361 239.

## 29 igandea

- **Errepide mozketa.** N-634 errepidea itxita, Errekalde-Orio zentzuan. Ordutegia: 10:00-11:30. Orio-Errekalde arteko noranzko bide zatia zabalik. Zergatia: Atletico San Sebastianek antolatuturiko Nazioarteko Triatloi proba.

## Artea, lau hormetatik plazara



Sutegin egon dira margolanak ikusgai.

Ikasturtea amaitu dutenen artean daude baita, Artzabalgo pintura ikastaroko ikasleak. Urtean zehar landutako margolan eta eskulan bilduma,

Sutegin antolatuturiko erakusketan jarri zuten ikusgai, joan den asteburuan. Artista bikainak ditugu Usurbilen.

### Santuenerako Jai Batzordearen bilera

Ostegun honetan, ekainaren 26an, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Santuenea Auzo Elkarrean. Irailean ospatuko diren jaiak prestatzeko baliatuko da hitzordua.

Parte hartzera animatzen dute Jai Batzordekoek: "Festen prestatketan parte hartu nahi duen oro azaldu eta dituen proposamenak agertzera animatzen dugu".

### Pintxo-poteoa ostegunero

Ostegun arratsaldea izan, Kaxkoko taberna batera sartu eta pintxo-poteoa iragartzen duen kartela ikusten baduzue, egun, ordu eta leku egokian zaudete, edaritegiotako sukaldeetan prestatuturiko zizka-mizka gozoak, edariarekin batera, 2 eurotan dastatzeko. Ostegun arratsaldero, eta afalaurretik, pintxo-poteoan murgiltzeko aukera dago Usurbilen.

### Datozenak

#### Ekainaren 28an, Ziortzakoak laguntzera

Ziortzak egingo duen kanpaldiko azpiegitura muntatzeko da ekaineko azken larunbatean. Desmuntaketa, abuztuaren 10ean egingo da. "Bertara etorri nahi duten herritar orori deialdia egiten diegu animatzeko eta azaltzeko. Izena emateko zioztage@gmail.com idatzi edo 943 361 239 telefono zenbakira deitu".

#### Zirriborro tailerreko lanen erakusketa

Ikasleek ikasturtean zehar egin dituzten pinturak eta eskulanak ikusteko aukera ona izango dugu datorren astean. Ekainaren 28an zabalduko da erakusketa Sutegin. Ordutegia, hauxe: goiz partean 11:00-13:00, eta arratsalde partean 18:00-20:00 artean.

#### Auzolanerako deia, Udarregi Ikastolatik

Amaitu dira, Agerialde ondoan kokaturiko eraikin berriko lanak. Datorren 2014-15 ikasturterako espazioen berrantolaketa egin behar da orain. Lanotarako laguntza behar du Udarregi Ikastolak. Guraso, ikasle eta animatzen den herritar ororena. Hitzordua ostiral goiz honetarako jarri dute, ekainaren 27rako, 9:30etan Udarregi Ikastolako eraikin gorrian.

 **TAXI**  
24 h  
USURBILLEN  
-----  
677 37 34 66 ] Joxe  
943 36 21 78 ] Etxabe

  
**Otar-Goxo**  
El ikasgaiak  
Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

  
**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8  
☎ 943 370 008

  
OKindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

Lehenengo 6  
erosleentzako,  
garaje bikoitza  
banakako  
prezioan!

# ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

## 188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
**Agerreazpi,**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

### USURBILEN


VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1<sup>º</sup> Behea  
20009 Donostia

E: [contacto@viviendaslanin.com](mailto:contacto@viviendaslanin.com)

## 943 46 88 60

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)



## ROMERO MERTZERIA

Dena  
**%50!**

- Mertzeriako produktuak
  - Jostailuak
- Bazar artikulua
- Diru-zorroak...

ITXIERAGATIK LIKIDAZIOA!

Munalurra 8, USURBIL

# UDARREGI



# IKASTOLA



On do pãga sant\*xabekak!!!



943 361 216

**Udarregi Ikastola**

Gernika ibilbidea. USURBIL

[www.udarregi.com](http://www.udarregi.com)

[www.udarregi.mundua.com](http://www.udarregi.mundua.com)